



## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikabide erosoena gure web orria izango da: [WWW.ECOFROLADA.COM](http://WWW.ECOFROLADA.COM). Hori gutxi izango balitz, instagrameko kontu bat daukagu @ecofrolada izeneko. Bertan, jarraitzaileek gure produktuari buruzko informazioa eta argazkiak ikusi ahal izango dituzte. Hortaz gain, galdetegiak egingo ditugu, entsaladei buruz daukaten iritzia jakiteko eta haien proposamenak kontuan hartzeko.

Web orrian, gure entsaladei buruzko informazioa jarriko dugu; entsalada mota ezberdinak, nondik lortzen ditugun produktuak, Ecofrolada jatearen abantailak... Honetaz gain, astero web orrian nutrizioari buruzko informazio interesgarria argitaratuko dugu. Gainera, Zuatzu edo Miramon poligonoetan dauden enpresatan saiatuko gara saltzen.



Hori gutxi balitz, elikaduran eta osasunean adituak diren pertsonekin kolaborazioak egitea pentsatu dugu. Esaterako, @blancanutri-rekin lan egingo dugu, Bilbon jaiotako nutrizionista ospetsua. Emakume honek “dime que comes y te diré qué bacterias tienes” liburua argitaratu zuen 2020an eta instagramen 365.000 jarraitzaile baino gehiago dauzka.

Bestalde, bezeroekin harremanetan jartzeko, web orrian komunitateak sortuko ditugu, erabiltzaileek ezagutzak elkar banatu ditzaten, edo elkarri arazoak konpontzen lagun diezaieten. Gainera, komunitateen bidez, gure bezeroak hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. Sorkuntza kolektiboak ere erabiliko ditugu; balio proposamena sortzeko, bezeroen elkarlanera joko dugu. Bezeroei iritzia idazteko aukera eskainiko diegu, horrela gainontzeko bezeroek informazio gehiago izan dezaten eta entsalada mota berrien diseinuan parte hartzera animatu daitezten.





Web orriaren azpi-atal batean, gure enpresari buruzko informazioa jarriko dugu; nortzuk garen eta nola jarduten dugun azaltzeko. Gure lokalaren helbidea eta telefonoa ere jarriko dugu, nahi duten bezeroek gerturatzeko edota zalantzak argitzeko.

Lokalean sei orduz egongo gara bezeroentzat eskuragarri, 9.00etik 15.00etara. Han, entsaladak nola egiten ditugun ikusi eta produktua erosi ahalko dute. Aipatutakoaz gain, lokalean laguntza pertsonala eskainiko dugu. Horrela, bezeroa enpresaren ordezkari batekin komunikatu ahalko da zuzenean erosketa egiten duen bitartean.

Laburbilduz, gure bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko hainbat forma izango dituzte; hala nola, gure web orriaren bitartez, lokalera hurbiltzen edo instagrameko kontura mezu bat bidaliz. Beti eskuragarri egoten saiatuko gara, hurbileko enpresa bat izan nahi baitugu.